

A13 - LH/PARKE_bokazioak pizten

Lanbide Heziketako Ikaslan eta Hetele elkarteek eta Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak antolatutako ekimena da LH/Parke, eta lanbide-heziketaren ikuspegitik ikasleengan lanbide zientifiko-teknologikoekiko interesa piztea du helburu.

Ikasurtea

1. Batxilergoa

Data

Adosteko

Lantzen diren irakasgaiak

Kultura zientifikoa
Lanbide orientazioa
Teknologia
Teknologia industrialia

Jarduera mota

Aditua ikasgelan
Bisita erakundera

Hizkuntza

Euskara/Gaztelera

Irismen geografikoa

Araba
Bizkaia
Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

Euskadiko Parke Teknologikoak
HETEL
Ikaslan

Curriculumaren edukiak

Teknologia. 2. BLOKEA. Teknologiaren prozesua eta produktuak. 6. BLOKEA. Fabrikazio-prozedurak.

Kultura zientifikoa. 5. BLOKEA. Teknologia berriak komunikazioan eta informazioan.

Zer ikasten dute ikasleek?

Enpresa zientifiko-teknologikoen nola funtzionatzen duten ikasiko dute ikasleek, bai eta zer prozesu eta produktu egiten diren horietan eta LHko egresatu batek zer zeregin izan ohi duen horrelako enpresetan ere. Ikusiko dute lanbide heziketak funtsezko zeregina duela enpresa horien lehiakortasunean, eta esparru horietan emakumerik ez dagoela.

Hori guztia dinamika atseginak eta hurbilak erabiliz egingo da, eta formatu dibertigarri batean.

Baliabideak

Ez da behar aparteko materialik edo baliabiderik. Lehen dinamika batxilergoko gela egingo da, ohiko ekipamenduekin. Bigarren zatian, ikasleak taldetan banatuko dira seguru asko, zeregin batzuk bete eta amaieran entregagai batzuk egiteko.

Teknologia-parkeko dinamikarako autobusa behar da bertara joateko (antolatzaileek finantzatu ohi dute: HETELek, Ikaslanek eta Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak), eta jarduera egiteko baliabideak ere bai (aretoa, material didaktikoa...).

Garapena

Lehenengo jarduera batxilergoko 1. mailako ikasgelan egingo da, eta kanpoko bi eragilek hartuko dute parte bertan: batetik, LHko ikasketak egin eta gaur egun teknologia-parkeko enpresa batean lanean ari den pertsona batek, eta bestetik, teknologia-parkeko enpresa bateko pertsona batek. LEINN graduoko (Mondragon Unibertsitatea) azken mailako ikasleek diseinatuko dute jardueraren gidoia, eta helburu argia du: ikasleak zientziaren eta teknologiaren mundura eta LHra hurbiltzea, modu interaktibo batean. 2 ordu inguruko iraupena du dinamikak, eta, amaitu ondoren, batxilergoko ikasleek entregagai batzuk egin behar dituzte. Bigarren jarduera Hackathon bat da, eta teknologia-parkean egingo da. Jarduera horretan, batxilergoko 100 ikasle inguru bilduko dira lurralde historiko bakoitzetik (aldez aurretik hautatuak haien entregaien arabera), eta 4-5 orduko iraupena izango du.